



IRAKURKETA-FITXA: «UDAREAREN ISTORIA»

Jarduera honen bidez lan ditzakegun edukia:

Arloa: Gizarte-zientziak. 2. blokea: Gure mundua;
3. blokea: Gizartean bizi.

Arloa: Hizkuntza eta literatura. 1. blokea: Ahozko komunikazioa: hitz egin eta entzun; 2. blokea: Idatzizko komunikazioa: irakurri; 3. blokea: Idatzizko komunikazioa: idatzi.

Arloa: Gizartearen eta herritarren balioak. 2. blokea: Ulermena eta errespetua gizakion arteko harremanetan; 3. blokea: Elkarbizitza eta gizarte-balioak.

Behariko dugun materiala:

«Udarearen istorioa» ipuina.

«Udarearen istorioa» ipuinaren posterra.

Hezitzailearentzako oharra:

Jarri ipuinaren posterra gelan ondo ikusten den leku batean, posterreko irudiez lagunduta kontatzeko udarearen istorioa.

Garapena:

1. fasea:

Posterra ondoan duzula, irakurri «Udarearen istorioa» ipuina.

Ipuina irakurri ondoren, jarduera erraz hau egin dezakezue, fruten eta barazkien lekuan jartzeko:

Esan neska-mutilei pentsatzeko:

- Asko gustatzen zaien eta ondo moldatzen diren jarduera/kirol/lantxoren batean: Zenbat denbora daramazue horretan? Noiz hasi zineten ikasten? Zenbateko ahalegina egin behar izan duzue dagokion arlo horretan ondo moldatzeko?

Denen artean, gogoeta egin:

- Demagun zuen itxuragatik debekatu egiten dizuetela hainbeste gustatzen zaizuen jarduera/kirol/lantxo horretan aritzea, eta ez dizuetela aukera txikiena ere ematen ze ondo moldatzen zareten erakusteko. Nola sentituko zinatekete? Ondo irudituko al litzaizueke? Zer egingo zenukete zuen burua defendatzeko?



2. fasea:

Ipuineko istoriora itzuli, eta, denen artean, hausnartu edukiaren gainean, jardueraren lehen fasean landutakoarekin lotuz:

- Ipuinean, nor dago aipatu berri dugun egoera horretan (itxuragatik baztertuta)? Zeintzuk geratu dira beren itxuragatik baztertuta?
- Zuen ustez, nola sentitzen dira fruta eta barazki horiek?
- Pentsatu jardueraren lehen zatian landutakoan. Orain, gai al zarete baztertuta geratu diren elikagaien lekuan jartzeko?
- Ipuinean, bi aldiz bota dute janaria. Gogoratzen al dituzue bi momentu horiek? Zergatik bota dituzte elikagaiak zaborretara?
- Etxean ikusi al duzue inoiz janaria zaborretara botatzen? Eta ikastetxean? Eta beste inon?